

1. PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Ba al zenekien gaur egun gela berean badaudela asko dakiten haur asko, baina eskatzen zaien ikasteko modua dela eta ez dutela hori erakusteko ahalmena?..

Estadistikek baieztatzen dute ikasleen %10 eta %12 artean diagnostikoaren bat edo hezkuntza-laguntzaren espezifiko baten beharra dutela adin horietan eta beste %20 eta 30% bitartean diagnostikatu gabe daudela daudela. Gure enpresaren helburua da portzentai horiek gutxitzea edo desagerraraztea.

Gaur egun, 6 eta 9 urte bitarteko haur askok ikaskuntza-prozesuan erronka garrantzitsuak dituzte. TDAH, TDA, dislexia, TEL, disortografia, disgrafia, gaitasun handiak edo zailtasun emozionalak dituzten haurrek maiz ez dute **beraien benetako beharretara egokitutako materialik**, ez eskolan ezta etxean ere. Baliabide horien faltak eragin zuzena du haien **motibazioan, arreta-gaitasunean eta autoestimua eraikitzeke prozesuan**.

IES Francisco de Vitoria BHI-ko 4 gizarteratzailek osatzen duen enpresa da, helburu bezala daukagu premia horiei **erantzun eraginkorrak** ematea. Gure proiektuak **hezkuntza inklusiborako baliabide praktiko eta dibertigarriak** eskaintzen ditu, haur bakoitzak **bere erritmora** ikasi ahal izan dezan, bere gaitasunak indartu eta ikastea esperientzia positibo eta erakargarri bihurtuz.

Gure ikuspegia **hiru oinarritan** sustraitzen da:

- 1. Inklusio erreala:** ikasleen profilen aniztasunera egokitutako materialak, hezkuntza eta psikopedagogia arloko profesionalekin kontrastatuak.
- 2. Motibazioa eta jolasa:** interesari eusten dioten eta arreta sustatzen duten jarduera dinamiko eta gamifikatuak.
- 3. Malgutasuna:** baliabideak bai eskolan bai etxean erabili ahal izateko diseinatuta daude, jarraikortasun pedagogikoa bermatuz.

Horrela, ikastetxeei eta familiei **baliabide irisgarri, eguneratu eta eraginkorrak** eskaintzen dizkiegu, hezkuntza-ekitatea bultzatzeko eta haur bakoitzaren garapen integrala laguntzeko.

“Gaur egun, 6 eta 9 urte bitarteko haurren artean ia %30ak ikasteko zailtasunen bat dute... baina askok ez dute inoiz diagnostikorik jasotzen.”